

IRAKASKUNTZA-GIDA

2021/22

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

4. maila

IRAKASGAIA

25782 - Komunikazioa Euskaraz: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Arloa

ECTS kredituak:

6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Ikasketa planen helburuetan zehazten den bezala, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Graduko ikasleek arlo hauetan aritzeko gaitasun orokorrak eskuratuko dituzte: hezkuntzan, osasungintzan, kirol eta aisialdian eta kudeaketan. Edozein gizartetan goi mailako tituludunek ardura berezia dute hizkuntza-komunitateari begira. Haiek sortutako testuek eta mezuek hizkuntzaren estandar formala errespetatu behar dute eta egokiak izan behar dira dagokion komunikazio-egoeraren arabera. Horrenbestez, etorkizuneko profesionalak trebatu egin behar dira gauza izan daitezen hizkuntza-baliabide egokienak erabiltzeko eta euren bizitza akademiko eta profesionalean komunikazio-egoera bakoitzari behar bezala erantzuten jakin dezaten.

Bestalde, euskara hizkuntza gutxitua izanik, ez du oraindik gaztelaniak duen hedakuntza eta erabilera kirolaren eta jarduera fisikoaren arloan zein aisialdiaren esparruan; gure ikasleak, etorkizuneko profesional aditu gisa jardungo duten neurrian, garrantzizko eragileak izango dira euskararen normalizazioan, eta horrenbestez, hizkuntzaren alderdi normatiboak zein pragmatikoak ezagutu behar dituzte, ahoz zein idatziz aritzeko. Unibertsitateko Plan Gidariak oso aintzat hartzen du ardura hori eta bere ekarpena egiten du Euskararen Araua eta Erabilera eta Komunikazioa Euskaraz ikasgaiekin.

Irakasgai honek, bada, gizartearen arlo ezberdinetan eragile aktibo eta arduratsuak izateko egin behar duten bidean lagungarri izango zaien hainbat baliabide jarriko du ikasleen esku; beti ere, testuinguru profesionaletako eskakizunei egokiro erantzuteko funtsezkoak diren ahalbide komunikatibo eta linguistikoak jomugan.

Komunikazioa Euskaraz ikasgai honek arloko hizkeraren estandarizazioari egin nahi dio ekarpena. Espezialitate eremuko testu akademiko eta profesionalak landuko dira (idatziak edo/eta ahozkoak) ikaslea haien espezifikotasunaz jabe dadin.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. gaitasuna: Espezialitate arloan ohikoenak diren testuak identifikatzea eta komunikazio-egoeraren arabera ezaugarritzea, bereziki egoera formalean eta ez-formalean duten erabileraren arabera.
2. gaitasuna: Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzien arloko ahozko zein idatzizko testu-genero aukeratuak ulertzea, interpretatzea, eta ahoz zein idatziz ekoizteko gauza izatea, bereziki, haien alderdi linguistiko, komunikatibo eta testualak kontuan hartuta (edukien planifikazioa, kohesioa, konexio, koherentzia, zuzentasun gramatikala, e.a.).
3. gaitasuna: Kontsulta-tresnak erabiltzen jakitea hizkuntza-baliabideen formari, esanahiari eta erabilerari buruzko informazioa lortzeko, bereziki Interneten eskuragarri daudenak.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1. Euskaraz lan egiteko baliabide informatikoak eta kontsulta-tresnak.
2. Komunikazioaren helburuak, egoerak (baldintza fisikoak, mintzaideen ezaugarriak, euskarriak eta baliabideak …), gaiak, gaien trataera, egoera formalak eta ez-formalak.
3. Espezialitateko hizkera eta lexiko sorkuntzarako bideak.
4. Iritzia emateko testuak: Iritzi-artikulua eta debatea.
5. Azalpena ahoz eta idatziz emateko testuak.

EGITARAU PRAKTIKOA

 Arloko testu akademikoak identifikatze, ezaugarritze eta sailkatzea.

 Arloko testu profesionalen identifikatze, ezaugarritze eta sailkatzea.

 Informazioa eskuratzeko eta emateko testu-generoen lanketa; haien ahozko eta idatzizko ekoizpena (Wikipediarako testu idatzia, YouTuberako ahozko testua, jendaurreko ahozko aurkezpena, dibulgazio-testuak, txostenak, material teknikoak...).

 Iritzia emateko ahozko eta idatzizko testuen ezaugarritzea eta ekoizpena: iritzi-artikuluak, debateak, eta abar.

METODOLOGIA

Kurtsoak hertsiki erlazionatutako alderdi teorikoa eta praktikoa ditu. Ariketa praktikoetan oinarrituko dira eskolak bereziki. Ariketa horiek oinarri hartuta emango ditu irakasleak behar diren azalpen teoriko gehienak.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30		20		10				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	45		30		15				

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 20
- Banakako lanak % 40
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 20
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 20

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio-metodoei dagokienez, Ikasleen Ebaluaziorako Araudiaren 8. artikulua ildotik, irakasgaiak bi ebaluazio mota eskaintzen dira:

A modalitatea: Etengabeko ebaluazioa (%100): saio teoriko-praktikoetan gauzatzen diren lan ebaluagarriak kontuan hartuko dira; hauen gain, deialdi ofizialean azterketa teorikoa ere egongo da egin nahi duenarentzat.

B modalitatea: Azken ebaluazioa (%100): deialdi ofizialean gauzatuko den azterketa baten bitartez ebaluatuko dira ikaskuntzaren emaitzak. Honez gain, diziplinari buruzko frogak ere gaitu beharko dira.

A modalitatearen kasuan ikasleek, azterketa-probaren ordean egindako jardueren bidez eskuratuko dute kalifikazioa: jardura praktikoa (%60) eta lan monografikoa (%40). Ebaluatuko dira egindako ariketak eta praktikak, banakako lanak, talde lanak eta lanen ahozko aurkezpena. Irakasgai A modalitatean jokatu ahal izateko ezinbestekoa izango da irakasleak eskatutako lan gehienak (%90) garaiz eta moduan ematea eta horietako bakoitzaren kalifikazioa gaituta izatea.

B modalitatea: Azkeneko proba. Proba horren edukiak eskolatan landutako gai eta ariketa praktikoa zein teorikoen inguruan izango dira. Halaber, modalitate hau aukeratzen duen ikasleak irakasleak kurtso hasieran ikasle guztientzat proposa lezakeen lan monografikoa ere egin behar du eta azterketaren egunean aurkeztu, ahoz eta idatziz. Ebaluazio-irizpidea hurrengoa izango da:

- a) Amaierako proba idatzia:
• Ariketak: test erakoak eta erantzuna garatzekoak: % 40
• Idatzizko eta ahozko testuen ekoizpena (froga hau lan monografiko bati lotuta egon daiteke): % 50.
b) Ordenagailuko ariketa praktikoa: %10.
Irizpide hauek ohiko zein ez-ohiko deialdietarako erabiliko dira.

ERREFERENTZIA ETA ZITAZIO ARAUAK: Ikasleak, moduluko diziplinari buruzko proiektua baliatuta, zitazio arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Arau hauek bete ezean, plagioaren susmoa edo iruzurraren zantzua egotzi ahalko zaio egindako lanari. Ebaluazio-probak egin bitartean, irakasleak edozein unetan eskatu ahal izango die[la] identifikazioa bertaratutako ikasleei, eta horiek ikasle-txartela, nortasun-agiri nazionala, pasaporteak, edo, halakorik ezean, ebaluatzailearen iritziz nahikoa den egiaztagiria erakutsi beharko diote.

DEIALDIARI UKO EGITEA. Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatutako izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoko irakasgaiaren kasuan edo 18 astekoa urteko irakasgaiarenean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita. Irakasgaiaren irakaskuntza gidan epe luzeagoa ezarri ahal izango da. Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bada irakasgaiak kalifikazioaren % 40 baino handiagoa, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa <<aurkezteke>> izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua bada irakasgaiak kalifikazioaren % 40a edo hori baino txikiagoa, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du

automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

PANDEMIAREN BILAKAERAREN ONDORIOZ EZ-PRESENTZIALTASUNERA ITZULI BEHARKO BAGINA:

- Ebaluazio jarraituaren tresnak eta ehunekoak mantendu egingo lirateke.
- Ahozko aurkezpenak aurrez aurre egin beharrean, ikasleei aukera emango litzaieke bideoa beren kabuz grabatzeko edota aurkezpena BBC bidez egiteko. Bestalde, taldeka egiteko diseinatutako zenbait aurkezpen taldeka edo indibidualki egiteko aukera emango litzaieke.
- "Azken proba" ikasleek etxetik egingo lukete Egela erabiliz eta irakasleak zehaztutako eran.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdian ikasleak azterketaren bidez eskuratuko du kalifikazioa. Ikastarorako lan monografikoa aurreikusten bada, hura ere aurkeztu eta gainditu beharko du behin betiko kalifikazioa eskuratzeko.

PANDEMIAREN BILAKAERAREN ONDORIOZ EZ-PRESENTZIALTASUNERA ITZULI BEHARKO BAGINA:

Ikasleek probak etxetik egingo lituzkete Egelaren bidez eta irakasleak zehaztutako eran. Probak Fakultateak finkatutako egun eta ordu berean izango lirateke.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak gelan banatzen dituenak, kontsultatzeko edo irakurtzeko eskatzen dituenak eta E-Gelan jartzen dituenak dituenak.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

ALBERDI, X. & SARASOLA I. (2001). Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia, Bilbo, EHU.

ELORDUI, A. eta ZABALA, I. (2005). "Euskararen normalizazioaren erronka berriak: komunikabideetako profesionalak eta hizkuntzalariak elkarlanean" Mikel Arrieta; María González, Arantza Gutierrez, Idoia Torregarai, Ana Urkiza; Aitor Zuberogoitia (ed.) Kazetaritza Euskaraz: oraina eta geroa EHUKo Argitalpen Zerbitzua. Bilbo: 375-382

EUSKALTZAINDIA (1986). Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindaren erabakiak

EUSKALTZAINDIA (1992-). Euskaltzaindiaren arauak. Bilbo: Euskaltzaindia.

EUSKALTZAINDIA (1992). Hitz elkartuen osaera eta idazkera

EUSKALTZAINDIA (2000). Hiztegi batua. Euskaltzaindia, Bilbo.

GARZIA, J. (2008). Jendaurrean hizlari. Irun: Alberdania.

GUTIÉRREZ RODILLA, B.M. (1998). La ciencia empieza en la palabra. Análisis e historia del lenguaje científico. Ed. Península

GUTIÉRREZ RODILLA, B.M. (2005). El lenguaje de las ciencias Ed. Gredos

HAEE / IVAP (2005). IVAPeko estilo-liburua. HAEE/IVAP. Gasteiz.

IDIAZABAL, I. & GARCIA, I. (ed.), (2007). Ahozko euskara. Azterketak eta irakaskuntza. Bilbo: EHU. (sare-argitalpena: www.testubiltegia.ehu.es).

IDIAZABAL, I. & LARRINGAN, L.M. (arg.) (1998). Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratze baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza, EHU & Gasteiz, Arabako Foru Aldundia.

IVAP (1997). Argiro idazteko proposamenak eta ariketak. HAEE/IVAP. Gasteiz.

IVAP (2003). Galdezka: euskarazko zalantzei erantzunez. HAEE/IVAP, Gasteiz.

kontsulta: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43->

UZEI (1982). Maileguzko hitzak: ebakera eta idazkera

UZEI (1988) Laburtzapenen gidaliburua (siglak, ikurrak eta laburdurak) Elkar. Donosita

ZABALA, I. (2000). "Euskararen zientzia eta teknikarako erabileraren hizkuntza berezitasunak", Ekaia, 12.

ZUBIMENDI, J.R. (2004). Ortotipografia, Gasteiz: Eusko Jaurilaritza.

Sareko573/es/contenidos/informacion/dih/es_5490/adjuntos/estilo_liburua/ortotipografia.pdf

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

Administrazioa euskaraz
Ekaia
EKHUYAR Zientzia eta Teknika
Hik Hasi
Argia
Harmaila

Interneteko helbide interesgarriak

informacion/admin_hizkera/eu_3810/hizkera_menu_e.html

AGIRI SOZIOLABORALEN EREDUAK:

http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46714/eu/contenidos/informacion/dokumentu_soziolaboralak/eu_9374/agiri_soziolaboralak.html

AZPIDAZKI (Administrazio eta zerbitzuen arloan euskara erabiltzen laguntzeko gomendio, argibide eta baliabideak; EHU): www.ehu.es/azpidazki

Bizkaiko Foru Aldundia: <https://web.bizkaia.eus/eu/euskera-kultura-eta-kirola>

CENTRE DE REDACCIÓ: <http://mutis2.upf.es/cr/casjur2005/index.html>

DUDANET: <http://www.ivap.euskadi.net/r61-v50001x/eu/v50aWar/comunJSP/v50acambioldioma.do?v50aCgaldioma=eu>

EHULKU: <http://www.ehu.es/es/web/euskara/ehulku>

Euskal Kirolari (bloga): <https://www.euskadi.eus/web01-a1euskir/es/>

Euskal Kirolari (YouTube): <https://www.youtube.com/c/EuskalKirolari>

EUSKALTERM (terminologia bankua): www1.euskadi.net/euskalterm

EUSKALTZAINDIA: <http://www.euskaltzaindia.net>

EUSKARA BATUAREN ARAUAK eta HIZTEGI BATUA: www.euskaltzaindia.net

Euskara eta Kirola Jardunaldia – Larrainzar: <https://www.youtube.com/watch?v=sukoSO3ljgc>

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta KLultura Saila – Kirola: <https://www.euskadi.eus/gaiak/-/kultura-eta-kirola/kirola/>

<http://parles.upf.edu/cr/casacd/index.html>

<http://www.ehu.es/azpidazki/>

<http://www.ehu.es/ehulku>

<http://www.hiztegia.net>

<http://www.uzei.com/hobelex/>

<http://www.xuxen.com>

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Graduko Euskara irakasgaiaren YouTubeko kanal pribatua (UPV/EHU)

Osasungoa Euskaratzeko Elkartea, <http://www.oeegunea.org>

www.euskaltzaindia.net

www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz

www.hiztegia.net

XUXEN zuzezntzaile ortografikoa: www.xuxen.com

Zientzia eta Teknikaren aldizkaria, <http://www.zientzia.net>

OHARRAK

Ikastaroa egiteko gutxienez euskararen oinarrizko ezagutza izan behar du ikasleak.